

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIK

- 1-Orhoit zaitezte Piarrese?
- 2-Zer nahi gabe ukan zuen?
- 3-Idazki huntan morat doa?

②

GAIXO PIARRES!

Badire jende batzu, dudarik ez da, dena makhur eta nahi gabe izaiteko sortu baitziren.

Orhoit zaizte, behar bada, nola, bertz'orduz, Ixabel den-dariak galtza edo pantalon pare bat puskaz luzegi eginik, bere andreak eta bi alabek, elgarren ixilik moztu ziozkaten Piarresi, biharamun goizean, belhaunetaraino ere ez baitzitzazkon hel-tzen bezperako galtza luzegiak? Behorlegiko eztei batzuetara joan beharra, hantxet zortzi egunez eritua egon ere zen, medi-kuak zer nahi ikusi baitzuen hura ezin sendatuz.

Noizbait bizkitartean, egin ziozkaten galtza batzu neurri-ak, pollitak ezin gehiago. Lorietan zagon ordutik Piarres, morat nahi bazkariz joaiterat ekarria.

Eta huna hor Ustaritzera galdegiten dutela, Eztei handi batzuetara. Seietan hogoi lagun behar ziren, Errege Zalomon-en denboraz geroz ez baitzen holako eztei bat ikusi behin ere.

Erran eguneko, seiak eta erdietan tank, hantxet zen Pia-rres, Doniane Garaziko garan, athorra xuri ederretan, botoin urhea athorra papoaren erdian, bere galtza ederrak soinean. Gizon pizkorra ere baitzen, hari behako bat egin eta, bazter-tzen zitzaizkon denak ixil ixila, eta, treina abiatzean, bere jar-tokirat igan zen patxadarik ederrenean.

Ori, bakar bakarrik egin behar zuen pidaia! Arimarik ez barneño hartan! Hobe!...

Izpura eta Arradoiko alderdira eskuin behaturik, ezker gero Uhartre eta Izpegiko Iephoari, abiatu zen pipa bat erre har zuela hantxet, goxo goxoan. Eskua sakelarar emaitere-kan beraz, ohartzen da, gauazko uriak bideak zikindurik, bere galtza ederrak dena ixtil eta lohi dituela... Berroia! Halako gauza pollitak! Eta ezteietara doalarik!...

Pipatzea utzirik, mokanes xuria eskuan, jo eta zafra emai-ten da hor, ziliporta<sup>2</sup> khentzen! Debru bat eta erdi! Ixtil xikinak ez nahi joan! Erhi puntekin karraka eta ixtila barnago baizik ez sartzen, futxo!...

Bardin<sup>3</sup> nehor ez du han berekin... Khen balitza galtzak, eta eskuetan har, hobeki torratzeko<sup>4</sup>? Zertako ez? Bakarrik ez dea? Eup! goazen!...

Polliki polliki khentzen ditu beraz bere galtzak, esker eta eskuin behatuz, norbaitek halere ikusten ahal balu bezala...

Eta orai, lorietan ari da Piarres, bere galtzak garbi eta torra. Haize mehe figura bat heldu zitzaion artetan zango aztaletara, bainan, hots! ixtantean akabo du bere lana. Horra akabo! Leihotik zafra orai pitta bat, eta salbu da.

③ ADITZ IKASKUNTZA

- 31-Moztu ziozkaten
- 32-Bait zitzaizkon
- 33-Khen balitza
- 34-Goazen!

31. UKAN. Conj. periph. a dble complement

Indicatif imparfait. Hanc = a lui

- Nik nizkan (nizkan) = je les lui avais
- Zuk ziniokhan (ziniokhan) = us -- " -- aviez
- Harek ziozkan (ziozkan) = il -- " -- avait
- Guk giniokhan (giniokhan) = no -- " -- avions
- Zuek ziniokaten (ziniokaten) = us -- " -- aviez
- Heiek ziozkaten (ziozkaten) = ils -- " -- avaient

32. IZAN. Regime indirect. Indicatif

Imparfait

Hek ziren = ils étaient

- Hek (eur) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient
- " zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient
- " zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient
- " zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient
- " zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient
- " zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

33. UKAN. Eventuel. 2<sup>ème</sup> forme. Eventualité

en general.

O. S.

- Nik ukan banerza (si je l'avais)
- Hek -- " -- baheza
- Zuk -- " -- bazineza
- Harek -- " -- balerza
- Guk -- " -- bagineza
- Zuek -- " -- bazinezate
- Heiek -- " -- balerzate etc.

radical

O. P.

- Ukan banitza (si je les avais)
- " banitza
- " bazinitza
- " balitza
- " baginitza
- " bazinitzate
- " balitzate